



MECANERRENTZAKO TRANSIZIO PLAN EKOSOZIALA



Garúa | Urdulizko Udalak finantziatua

2023ko irailaren 1ean, Stellantis taldeak automobilgintzarako Mecaner trokelgintza fabrika **ixteko erabakiaren berri eman zuen**. Erabaki honekin, multinazionalak 148 pertsona kalean utzi nahi ditu, 2022an Mecaner enpresak **606.000 euroko irabaziak** izan ondoren.

Erabaki honi aurre egiteko, Mecanerreko Enpresa Batzordeak Urdulizko Udalarari fabrikarako trantsizio ekosozialeko plan bat egitea finantziazioa eskatu zion, **etorkizuna bermatu zezakeen alternatiba produktiboen azterketa egiteko**. Plan hau, hasieratik, borroka sindikalerako beste tresna bat bezala eraiki da, baita ekoizpen sozial eta ekologiko bidezkoago baten aldeko tresna gisa.

Garua kooperatibak erronka hartu zuen bere gain, eta azaroa eta otsaila bitartean landu dugu. Azken emaitza Mecanerreko Enpresa Batzordeak erabiliko du egokien irizten dioten denboran eta moduan.

Trantsizio plan ekosoziala. Zer da hori?

Egoera kritikoan dauden enpresetako langileek bultzatutako trantsizio-planak **tresna sindikal** bat dira, aurrekariak egon badaude eta hainbat irakaspen utzi dizkigute.

Lucas Plana, 1976an itxiko zela iragarri zuen armamentu militarreko enpresa britainiar bat birmoldatzeko proposamena izan zen, erabilera sozialeko 150 produktu alternatiboren diseinua garatzen zituena. **Nissanek** 2020an Bartzelonan zuen fabrika itxieraren aurrean, berau sozializatzeko eta birmoldatzeko proposamen bat aurkeztu zen; bertako ekoizpenax, erabilera publiko eta munizipaleko ibilgailu elektriko partekatuetara bideratzeko. Bestalde, 2021ean Campi di Bisenzio (Italia) **GKN Driveline** automobilgintzako osagaien fabrika itxiko zela iragarri zenean, ekoizpena garraio publikora, panel fotovoltaikoetara eta karga-bizikletetara ekologikoki birmoldatzea proposatu zen.

Egoera ekonomiko ezegonkorra, kasu gehienetan kapitalari mesede egiten dion esku-hartze publikoa eta krisi ekologikoaren ondorioak dira horrelako tresnak borroka sindikalean gero eta zentraltasun handiagoa hartzea eragiten duten arrazoiak.




Zeintzuk dira gure helburuak?

Lan hau hiru ardatzen arabera ezaugarritu dugu:

- Mecanerrek Euskal Herriko ekosistema industrialean duen egoera aztertzea.
- Ekoizpena industria-jarduerako beste sektore batzuetara birmoldatzeko aukera posibleak identifikatzea.
- Birmoldaketarako ibilbide-orri bat definitzea, inplikaturako eragileak, kudeaketa-eredua eta fabrikari beharko liratekeen eraldaketak definitzeko.

Horretarako, hainbat lan-fase izango ditugu, eta horietako bakoitzean sortzen diren galderei erantzuten saiatuko gara, hurrengo eskeman azaltzen den bezala.



Zer ekoizten da? Nola ekoizten da? Zein makineria eta trebetasunekin? Zeintzuk dira kostuak eta onurak? Zer laguntza jaso ditu?

Zer fabrikatu liteke makineriarekin eta langileen ezagutzatik abiatuta?

Produktu alternatiboaren katalogoa

Zein sektoretan kokatzen dira produktu alternatibo horiek? Trantsizio ekosozialarekin bat dator? Industria-politikako laguntzak jasotzen ari dira?

Zer aldaketa egin beharko lirateke produkzio-prozesuan? Birkualifikazioa? Aholkularitza tekniko aditua behar da?

Nork finantzatu dezake beharrezko den inbertsioa? Zer gertatuko litzateke fabrikaren jabetzarekin? Zer oztopo instituzional gainditu behar dira?

Azken emaitza honako hauek osatzen dute: **produktu alternatiboaren katalogo** labur bat, **kudeaketa- eta jabetza-ereduen** zenbait proposamen, birmoldaketaren **oztopoak gainditzeko moduaren deskribapena** eta prozesu hori bultzatzen **finantzaketa publikoko bideen identifikazioa**.

Krisi ekologikoa, industria-trantsizioa eta automobilgintzarako etorkizun zihurgabea

Mecaner ixteko mehatxua hiru fenomenok markatutako testuinguru zabalago batean kokatu behar da.



Hiru ardatz hauek elkargurutzatuz, trantsizio ekosozialeko plan bat sustatu daitekeela uste dugu, tresna sindikal gisa.

Ez da Mecaner bakarrik mehatxupean dagoena: bere sektore osoa egoera kritikoan dago eta etorkizun zihurgabea du. **Autoen salmentak behera** egin duenez, enpresa-taldeek **kostuak murrizteko estrategiak** areagotu dituzte, eta horrek eragin handia izan du industria osagarrian eta enplegatuetan. **Stellantisek irabaziak handitzen ditu, lan eskua murriztu eta ibilgailu gutxiago saltzen dituen bitartean.**

Krisi iraunkorrean dagoen automobilgintza-sektore baten aurrean, garrantzitsua da **etorkizun handiagoa duten beste industria-sektore batzuetan produkzio-aukerak bilatzea.**

Produkzio-aukerak eta kudeaketa-ereduak

Ekoizpen alternatiboak proposamenak, **Mecaner zabalik mantendu eta langileak kaleratuak izan ez daitezzen dute helburu**. Horiek identifikatzeko, hiru irizpide jarraitzen ditugu:

- Mecanerren eta bertako langileeen esperientzia eta gaitasun industrialaren antzeko **fabrikazio-prozesua** duten produktuak: trokelgintza eta estanpazio metalikoa.
- Datozen urteetan jarduera handitu beharko luketen sektoreei lotutako produktuak, **trantsizio ekosozial** zabalago baten zati gisa.
- Industria-politika "berdearen" bidez **finantzaketa publikoko laguntza garrantzitsuak jasotzen** ari diren sektoreetan kokatutako produktuak.

Horrela, Mecaner datozen urteetan jarduera handituko duten eta **trantsizio energetikoari lotutako teknologien fabrikazioa** bultzatzeko finantzaketa publikoa jasotzen ari diren industria-sektoreekin nola lotu daitekeen adierazi nahi dugu.

Produktu horiekin batera, **kudeaketa eta jabetza eredu hainbat aukera deskribatzen ditugu**: Stellantisen deslokalizazioa saihestetik, eraldaketa proiektua bultzatzeko kapital publikoa sartzeraino. Erakunde publikoek tresna ugari dituzte prozesu hori babesteko.

Tresna sindikal berria

Lantegi baten itxiera iraultzea eta langileen kaleratzea saihestea erronka oso konplexua da. Horregatik, **funtsezkoa da erakunde publikoen inplikazio aktiboa lortzea**. Lan hau norabide horretan kokatzen da, egoera larri honetan balia daitezkeen politika publikoak eta industria-politikak deskribatuz.

Itxiera-prozesu bati eta industria-birmoldaketaren proposamen bati zentzu ekologiko batean aurre **egiteak aukera ematen die langileei protagonismo handiagoa** har dezaten beren enplegurako etorkizun baten defentsan, trantsizio ekosozial justu batekin bat datorrena. Ekonomiaren eraldaketaren elementu nagusiak eztabaidan jartzeko aukera ematen du: **zer fabrikatzen dugu? nola fabrikatzen dugu? norentzat fabrikatzen dugu?** Horrez gain, enpresa pribatuei diru publiko ugari bideratzen ari zaizkien **industria-politika "berdeei" aurre egiteko** aukera ematen du, baita eskualdearen etorkizun ekonomiko eta sozialaz hausnartzeko bidea zabaldu ere.

Enpresa baten itxiera mehatxua agertoki latza da eta etsipenez har daiteke, edo egoera kritiko bati erantzuteko **tresna sindikal berriak probatzeko aukera** gisa balia daiteke. Hemen bigarren norabide horretan ekarpena egin nahi dugu, gure ustez Mecanerreko langileen aldeko indarren korrelazioa hobetzen duen tresna delako; parte-hartze insituzionalerako proposamen zehatzak proposatzen dituen eta eskualdeari alternatiba bat eskaintzen diona. Mecaner zabalik eta enplegu defentsaren aldeko borrokan laguntzea eta etorkizuneko esperientzietarako irakspenak eragitea espero dugu lan honekin.



MECANER EZ ITXI!